

## EpaiDigitala (Webex) jarduketa judizialean parte hartzea

### Organoaren jakinarazpena

Deialdia egiten duen organoak mezu elektronikoa bat bidaliko dio parte-hartzaile bakoitzari, ekitaldiaren datuekin (eguna eta ordua), eta sartzeko estekarekin.

### Konexioa egiteko behar diren baliabideak

- Mahai gainekoa edo ordenagailu eramangarria, Windows 10 eta Microsoft Edge, Google Chrome edo Mozilla Firefox nabigatzaileen bertsio eguneratuekin.
- [Nabigatzailea](#) edo [aplikazioa](#) erabiliz nola konektatu azaltzen duen bideoa ikus dezakezu.
- Interneterako sarbidea duen telefono mugikorra edo tableta. [Mugikorra edo tableta erabiliz](#) nola konektatu azaltzen duen bideoa ikus dezakezu. Gomendagarria da [Webex konexiorako test bat egitea](#), gailuaren bateragarritasuna egiaztatzeko eta irudiaren eta audioaren kalitatea egiaztatzeko.
- Kamera, mikrofonoa eta bozgorailuak. Mikrofonoa duten entzungailuak erabiltzea gomendatzen da, zaratak saihesteko.
- Interneterako konexio ona. Zure konexioa egiaztatu [hemen](#).

### Bilerara sarbidea

- Sartzeko, egin klik email bidez jasotako gonbidapeneko bilera-estekaren gainean (edo kopiatu eta itsatsi nabigatzailean).
- Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus [kanpoko gonbidatuentzako eskuliburua](#).

### Identifikazioa

Funtzionarioak pertsona horren identifikazioa egiaztatuko du.

### Desgaitasunen bat duen pertsonari buruzko prozesuetan kontuan hartu beharrekoa

- Elkarrizketak isilpekoak dira, pertsonaren intimitateari eragiten baitiote.
- Bilatu intimitate hori gordeko duen lekua eta sahiestu areto komunetan, korridoreetan... egitea.
- Hitz egin behar dutenez, sahiestu distrakzioak eta kanpoko esku-hartzeak.
- Artatzen dituztenek (zaintzaileak, senideak, langileak) erraztzaile gisa joka dezakete komunikatzeko zailtasunen bat badute.